

## Galdera

- a) "Iratxo bizargorri bat plantatu zitzaidan aurrez aurre." Hauxe zalantza: "Iratxo bizargorri bat..." ala "Iratxo bizar gorri bat..." beharko luke? Alegia, loturik ala bereiz?
- b) "Mahai gainean erdi-bilduta zeukan eskuineko besoaren gainean burua bermatuta zeukala ohartu nintzen". Hauxe zalantza: "erdi-bilduta" ala "erdi bilduta"? Alegia, gidoitxo beharko luke?

## Erantzuna

- a) Guk **bizargorri** idatziko genuke.
- b) Guk **erdi bilduta** idatziko genuke.

### a) Bizargorri

**1/** Euskaltzaindiak marratxoarekin edo loturik idazteko aukera ematen du horrelako hitz-elkartuek ([25.- Hitz elkartuen osaera eta idazkera](#)):

*Sudur-luze moduko elkarte arruntak: (neska) sudur-luze edo sudurluze, (zezen) adar-motz edo adarmotz, (agure) buru-soil edo burusoil, (mutiko) musu-gorri edo musugorri, (marinel) odol-bero edo odolbero...*

**2/** Akademiak aukera biak eman arren, EIMAK loturik idaztea hobesten du Estilo-liburuan ([Ortotipografia](#)):

*5. Euskaltzaindiak marratxoz nahiz loturik idazteko aukera emana duen sudurluze ereduko hitz-elkarte arruntak, antzemangaitzak ez direnean, loturik idaztea hobesten eta gomendatzen da ikasmaterialetan: (neska) sudurluze, (zezen) adarmotz, (agure) burusoil, (mutiko) musugorri, (marinel) odolbero...*

**3/** Euskaltzaindiaren Hiztegian honela jasotzen du [bizargorri](#):

adj. Bizarra gorria duena. Arrantza-ontziaren gainean sokak antolatzen ari zen arrantzale bizargorri batek so egin zidan, baina ez zidan ezer esan.

### b) Erdi

Ikus [Euskara batuaren eskuliburua](#) (kontsulta honetako bigarren galderari lehen paragrafoa dagokio):

- Bereiz, *erdizka* adierazten duenean (nola) adizlagunekin: erdi lo, erdi jantzita, erdi barrez, erdi hilik, erdi negarrez, erdi txantxetan, erdi ezkutaturik... Orobat izenekin (zer) esanahi berarekin, eta izenondoekin (nolakoa): erdi itsu, erdi gizon, erdi txori, erdi tentel, erdi zoro, erdi haserre...
- Lotuta, tradizioko hitzetan: erdialde, erdibide, erdigune, erdipurdi.
- Lotuta, izenei edo izenondoei itsatsirik *semi-* aurrizkiaren adiera duenean: erdieroale, erdiesferiko, erdizirkular, erdikontsonante, erdiireki, erdigaingabetu, erdiiragazkor, erdinomada, erdiautomatiko...
- Marratxoarekin, hitz-elkartearen esanahia eskuineko izenak adierazten duenaren erdia denean: erdi-prezioan [saldu] [prezioaren erdian saldu] eta erdi-lanak [egin] [lanen erdiak egin].
- Marratxoarekin zein bereiz, aukeran, *erdi* hitzak *erdiko* esan nahi duenean (letra larriz hasitakoetan, ez da marratxoa erabili ohi): erdi(-)maila, Erdi Paleolito, Erdi Aroa.